



## Euroak 20 urte



**MIKEL ZUBANO**  
EKONOMIALARIA

**H**ogeigarren urteurrenaren karira euroguneko finantza ministroek euroaren aldeko agiri bateratua kaleratu dute eta emaitza harrigarria izan da: ez da ezer gertatu. Ez da izan ez aldeko ez aurkako ahots sendorik. Paradoxikoa dirudi noiz eta pandemiaren ekonomiari aurre egiteko diru politika hedatzaileari esker euroaren proiektua sendotu egin denean. Munduko bigarren txanpona da dolarraren ondoren, eta barne merkatuko elkartrukeen kostuak leundu ditu, zalantzarik gabe.

Baina, ezin dugu ahaztu aurreko hamarkadan doikuntza politika zorrotzek eragindako kontrako haizeak euroaren krisi larria ekarri zuela. Hain ataka estua bizi izan zuen euroak 2010, 2012 edo 2015 urteetan, ezen Stiglitz eta Krugman nobel saridunek bere desagerpena iragarri zuten.

Gogoan izan behar dugu, euroa ez zela sortu ekonomia eta diru batasunaren ohiko irizpideetan oinarriturik. Euroak ez du estatu bat bere arkitektura sustengatzeko, ezta altxor orokor bat edo aurrekontu orokor bakarra. Europako Banku Zentrala diru politikaren jabe da, baina zerga politika komunik ez dago. Hori ezean, zaila da ekonomia integrazioak sortutako desberdintasunak lausotzea. Bankuen zein finantzaren arloan ere ez dago merkatu bakarra. Arkitektura instituzionalaren gabezia horiek euroa ataka larrian ipini izan dute, eta hala ere txanpon bakarrak iraun badu, euroa bera Europako Batasuneko proiektu

Arkitektura  
instituzionalaren  
gabezia horiek euroa  
ataka larrian ipini  
izan dute, eta hala  
ere txanpon bakarrak  
iraun badu, euroa bera  
Europako Batasuneko  
proiektu politikoaren  
gunea delako izan da

politikoaren gunea delako izan da. Europako Batasunaren integrazio politikoaren prozesuan eliteek ez dute bide federalaren alde egin. Hori gabe, integrazio gradualagoa lehenetsi izan da, eta bide honetan urrats bat izan da diru batasuna.

Euroaren gabeziak estaltzeko, txanponen trukearen kostuak eta debaluazioaren arriskuak uxatuta, ekonomia integrazioaren helburua lortuko zela esan ziguten bere sustatzaileek. Horrek mugaz gaindiko merkataritza zabalduko zuela zioten, prezioak egonkortu, inbertsioa handitu eta produktibitatearen igoera sustatuko omen ziren. Ondorioz, herritarron bizi mailan eta

herrialdeen ekonomietan konbergentzia emango zela gaineratu zuten. Hots, euroak Europako Batasunaren alemanizazioaren onurak sustatuko zituen halabeharrez.

Hogei urte eta gero asmo horietako gehienak bertan behera gelditu dira. Bi hamarkadetako euroguneko barne merkataritza %10 igo da soilik eta, aldiz, munduko merkataritzaren hedakuntza %33koa izan da. Areago, Alemania eta eurotik kanpo dauden Europako Batasuneko hiru herrialdeen (Polonia, Hungaria eta Txekia) arteko merkataritza %63 igo da. Inbertsio produktiboaren arloan antzeko emaitza errepikatzen da. Alemaniako zuzeneko atzerriko inbertsioaren zati handiena eurotik kanpo dauden Europako ekialdeko herrialdeetara bideratu da. Beraz, inbertsio eta produktibitatearen arloan eurogunean dibergentziak gora egin duen bitartean, eurotik kanpo dauden Europako Batasunekoekin konbergentzia prozesua nagusitu da. Herrialde arteko antzeko bilakaera kontraesankorra egiaztatzen da biztanleko errentaren maila alderatzen badugu.

Atzerako begirada batean, euroaren konbergentziarako promesak huts egin du eta eurogunean kontrarako bidea eman da hegoaldeko eta guneko herrialdeen artean. Errealitate horrek lotura estua du arestian aipatutako euroaren arkitektura instituzionalarekin. Etorkizun hurbileko digitalizazioarena erronka anekdota hutsa da aipatutako gabezia estrukturalak mahai gaineratzen dutenaren aurrean. ●